

GOIERRIKO HITZA

Asteazkena, 2020ko irailaren 9a

Zalduak pentatloi txapelketako finala jokatu du

ZUMARRAGA // Xabier Zaldúa zumarragarra euskal pentatloi txapelketako finala jokatzeko sailkatu da. Kanporaketa igandean izan zen, Azpeitian, eta Zalduak denbora onena lortu zuen. Julen Gabirondo, Arria V.a, Kepa Peñagarikano, Iñaki Errazkin eta Julen Kañamaresek ere sailkatzea lortu zuten. Finala hilaren 26an jokatu dute, Azpeitian. 2018ko eta 2019ko txapelketak Zalduak irabazi zituen.

Urretxuko igerilekuak 16.514 erabiltzaile izan ditu

URRETXU // Urretxuko igerilekuak 16.514 erabiltzaile izan ditu zabalik izan den bi hilabeteetan. Egutero 262 pertsona sartu dira igerilekura (batez beste). Iaz egutero 303 erabiltzaile izan ziren (orain arteko datu onena). Bi hilabete 221 bonu, 10 sarrerako 29 bonu eta 7.041 sarrera saldu dira. Putzuko aforoa 178 laguneko izan da eta une batzuetan erabiltzaileek itxaron egin behar izan dute.

Euskaraldia dinamizatze lan deialdia

ZUMARRAGA // Zintzo-Mintzok Zumarragan Euskaraldia dinamizatze lan deialdia egin du. Lan kontratua irailaren 15etik abenduaren 12a bitartekoa izango da eta lanaldia egunean zortzi ordukoa. Curriculum *zintzo_mintzo@otamotz.eus* helbidera bidali behar da. Bihar da curriculum aurkezteko azken eguna.



Adineko emakume bat, erosketekin; bakardadeak emakume aurpegia du. ASIER ZALDUA

Urretxun zahartzaroari eta bakardadeari buruzko azterketa egin dute

Azterketa Farapi kooperatibak egin du, herriko errolda erabilia

- 2018. urtean 577 adineko pertsona ziren bakarrik bizi zirenak
- Hauetatik guztietatik, %87,7 herrigunean bizi ziren

– **ASIER ZALDUA** *Urretxu* Farapi kooperatibak zahartzaroari eta bakardadeari buruzko azterketa egin du Urretxun, errolda oinarri bezala hartuta eta genero ikuspegia txertatuta.

Azterketaren izenburua *Zahartzarora eta bakardade egoerak Urretxun* da eta Farapikoek udalak eskatuta egin dute. «Euskal Herriko biztanleria zahartzen ari da eta horren inguruko kezka geroz eta handiagoa da.

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen kezka berezia sortzen dute, gizartearen aldaketaren ondorioz, geroz eta jende gehiago denbora gehiago bizi baita bakarrik. Horrekin lotuta, zaharren egoitzen eredia garestia da eta, gainera, adinekoek nahiago dute beraien etxean bizi», aipatu du Farapiko June Aretxalde.

Hortik abiatuta, Farapikoek bakardadearen argazkia egin dute. «Udalak errolda erabiltzea

nahi zuen eta hala egin dugu. Hala, bakarrik bizi diren adina ezagutu ahal izan dugu eta baita non bizi diren ere».

Kopurua

Azterketaren arabera, 2018. urtean 577 adineko pertsona ziren bakarrik bizi zirenak: populazio osoaren %8,5a eta 65 urtetik gorako biztanleen %37a. Bakarrik bizi diren erdiak baino gehiagok 80 urtetik behera ditu. 80 ur-

teak gorakoen ia %50 bakarrik bizi da. 80 eta 89 urte bitarteko 190 pertsona bakarrik bizi dira eta 90 urtetik gorakoen artean 77 dira.

Generoari dagokionez, bakarrik bizi diren bi herenak baino gehiago emakumeak dira. Adinak gora egin ahala, portzentzia horrek gora egiten du. Bizitokiari dagokionez, %87,7 herrigunean bizi dira. %12,3 bakarrik bizi dira Aparizio, Basagasti, Lilibaso, Sorgintzulo, Elizalde, Gurutze, Mundo Mejor, Santa Barbara eta landa eremuan.

Bakardadearen arrazoiei dagokionez, garrantzitsuenetako bat alarguntza da. «Emakumeek bizi itzaropen handiagoa dutenez, alargunen artean gehienak emakumeak dira. Hala, bakardadeak emakume aurpegia duela esaten da. Dena den, Gipuzkoa barnealdean inoiz ezkondu ez den gizonezkoen kopurua ere azpimarragarria da. Beraien gurasoak hiltzen direnean, bakardade egoeran sartzen dira eta etxeko lanetan eta autozaintzan laguntza behar dute. Gainera, askok sozializatzeko arazoak izaten dituzte».

Bestalde, bakarrik bizi diren emakume askoren egoera ekonomikoa kaxkarra dela gogoratu du. Bakarrik bizi diren askok laguntza behar dute, beraz: lagun berriak egiteko, etxeko lanak egiteko, beraien burua zaintzeko edo hilabete amaierara iristeko. Aretxalde beraie laguntzea gizarte guztiaren erronka dela gogoratu du. «Bakardadeari aurre egiteko politikak hasi berriak dira. Proba ezberdinak egiten ari dira eta Bartzelonako Radar proiektua oso interesgarria da, adibidez: auzoko bizilagunak eta merkatariek adinekoen egoeraz arduratzen dira. Arazo honi aurre egiteko, esku hartzea komunitarioa izan behar da».

Hilberriak

HITZA, Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

**HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK**

HITZA hitza

TXIKIA (82mmX64mm): 100 € Hitzakideentzat 50 €

HANDIA (124mmX64mm): 150 € Hitzakideentzat 75 €

ESKERTZA (38mmX64mm): 50 € Hitzakideentzat 25 €

ESKERTZA (Eskela jarri baduzu): 10 € (Eskela jarri baduzu): 10 € bez. barne

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu. goierri@hitza.eus / Tel.: 943-16 00 56

GOIERRIKO HITZAN jarrita, Urola Kostako Hitzan, Tolosaldeko Atarian eta goierri.hitza.eus webgunean

